



# ARANTZAKO UDALA

---

## OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2024.02.16

**Ordua:** 16:30

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

### Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu. *3. puntutik aitzin bertaratu da.*
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.

### Bertaratu ez direnak:

- Inor ere ez.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

### AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespina.
2. Informazio batzordeak eratu eta osatzea. Turismo arloko bigarren zinegotziaren izendapena.
3. CEDERNA-GARALUR elkarteko ordezkari titularraren ordezkorearen izendapena.
4. Alkate eta zinegotzien lansariak finkatzea.
5. 2022ko kontuen itxiera onespina.
6. Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztearen onespina.
7. Mikel Altzuri Apezetxeak zain irauliak aprobetxatzeko onespina.
8. Alkate Ebazpenak.
9. Eskera eta galderak.
10. M8ko adierazpen instituzionala: "Matxismoa isilarazi".

## 1. UDALA ERATZEKO AKTAREN ONESPENA.

2024/01/11ko ez-ohiko osoko bilkurako aktako lehenengo puntuko akordioan, osoko bilkuretarako deialdiaren maiztasunari dagokiona, akats bat dagoela antzeman da. Horrela bada, honela dioen lekuan: *"udaleko ohiko osoko bilkurak hilero, lehenengo ortziralean, arratsaldeko 16:00etan egitea."* honela paratu beharra du: *"udaleko ohiko osoko bilkurak hilero, lehenengo ortziralean, arratsaldeko 16:30ean egitea."*

Akatsa zuzenduta, 2024/01/11ko ez-ohiko osoko bilkurako akta AHO BATEZ ONETSI da.



## ARANTZAKO UDALA

### **2. INFORMAZIO BATZORDEAK ERATU ETA OSATZEA. TURISMO ARLOKO BIGARREN ZINEGOTZIAREN IZENDAPENA.**

Idazkariak azaldu du 2024ko urtarrilaren 11ko ez-ohiko osoko bilkuran informazio batzordeak eratu eta osatu zirenean Igor Ugalde Salazarri esleitu zitzaizkiola Ingurugiroko, Baserrigintzako eta Turismoko arloak. Aldiz, alkateak adierazi zuen Turismoko arloa Julen Oskoz Elizondo zinegotziarekin batera partekatua egon beharko litzatekela.

Horri dagokionez, Igor Ugalde Salazarrek eta Julen Oskoz Elizondok beraien adostasuna adierazi dute Turismoaren arloa partekatua izatearekin.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Turismo arloko bigarren zinegotzia Julen Oskoz Elizondo izendatzea. Horrela bada, Turismo arloa Igor Ugalde Salazarrek eta Julen Oskoz Elizondok eramanen dute.

### **3. CEDERNA-GARALUR ELKARTEKO ORDEZKARI TITULARRAREN ORDEZKOAREN IZENDAPENA.**

Idazkariak azaldu du 2024ko urtarrilaren 11ko ez-ohiko osoko bilkuran Igor Ugalde Salazar izendatu zela Arantzako Udalaren ordezkari CEDERNA-GARALUR elkartean. Halaber, 2024ko urtarrilaren 17an aipaturiko elkarteak ordezkari supleentearen izendapenaren inguruan galdetu du; horrela, baldin eta titularrak bileraren batea joan ezin badu, honako honen ordezkoa joan ahal izan dadin.

Alkateak adierazi du CEDERNA-GARALUR Elkartearen bileretan Arantzako Udalaren ordezkari bat egonen bermatzeko supleentea izendatzea garrantzitsua dela eta, horretarako, bere burua aurkeztu du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Saturnino Larralde Ibarrola izendatzea CEDERNA-GARALUR ELKARTEko Arantzako Udalaren ordezkari supleentea, titularra Igor Ugalde Salazar izanik.

**\* Andoni Mitxelena Danboriena bilerara sartu da.**

### **4. ALKATE ETA ZINEGOTZIEN LANSARIAK FINKATZEA.**

Idazkariak adierazi du 2024ko urtarrilaren 11ko ez-ohiko osoko bilkuran azaldu zuela Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako toki korporazioek beren aurrekontuetan kontsignatu ditzaketela beren karguetan jarduteagatik beren kideei ordainsariak eta kalte-ordainak ordaintzeko zenbatekoak.

Era berean, azaldu du aipatutako ordainsariak eta kalte-ordainak finkatzeko prozedura eta baldintzak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75., 75bis eta 75ter artikuluetan eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak direla. Bertzalde, Sektore Publikoaren eremuko



## ARANTZAKO UDALA

ordainsarien arloko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulua toki-korporazioetako kideen ordainsari-araubidea ezartzen du.

Hori erranda, ez-ohiko osoko bilkura horretan puntu hau hurrengo bilkuran lantzeko atzeratzea adostu zela azaldu du. Izan ere, une horretan udalkideek ez zuten gaia nahikoa landua eta hausnartzeko denbora gehiago behar zutela adierazi zuten.

Jarraiki, Igor Ugalde zinegotziak adierazi du aitzineko legealdietan udalkideen lansarien inguruan transferentzia arrunta jasotzen zela Nafarroako Gobernutik. Kopuru hori 8 zatitan banatzen zen, horietatik 2 alkatearentzako ziren eta 6 zinegotzien artean banatzeko. Aldiz, gaur egun ez dago horrelako transferentzia zehatzik, beraz, lansari kopuruak berariaz ezartzearen beharra azpimarratu du.

Leire Mitxelena zinegotziak azaldu du lansariak ezartzeko zailtasuna sortzen dela udalkideek herrigintzan inbertitzen duten denborarekin alderatzean. Izan ere, Arantzako biztanle kopuruaren arabera, alkateak dedikazio partziala izan dezake, baina ez zinegotzietatik. Horrela bada, udalkideek udalean egiten duten lana neurri handian boluntarioa da eta, hori horrela izanik, horretan inbertitzen duten denborari prezio bat paratzea kontraerankorra dela uste du.

Saturnino Larralde alkateak aipatu du bere lansariak ez diola arduratzen, baizik eta zenbat denbora dedikatu beharra dion alkate lanei. Izan ere, ordu aunitz inbertitzen ditu udaleko lanetan eta dedikazio hori behar bezala islatuta geratzea garrantzitsua dela iruditzen zaio, lansariaren kontua alde batera utziz.

Zentzu horretan, udalbatzako kideek eztabaidatu dute eta proposatu dute Arantzako alkatearen dedikazioa partziala izatea, astean 16 ordukoa, hau da, 36:40 orduko ohiko lanaldiaren % 43,64. Era berean, uste dute kasu honetan egokia litzatekela hilean 600,00 euro inguruko lansari garbia ezartzea, hamalau ordainsaritan banatua. Horri dagokionez, idazkari-kontuhartzaileak adierazi du, alkateari aplikatuko zaion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Gizarte Segurantzaren langile-kuotaren atxikipean kontuan hartuta, hileko ordainsari gordina 745,00 euro izanen zirela, hau da, 10.430,00 euro gordin urtean.

Jarraian, adierazi dute ez dutela inolako eragozpenik ikusten orain arte aplikatzen zen osoko bilkurara joateagatiko korporazioen ordainsariari. Hala ere, uste dute kasu honetan egokia litzatekela jasotako azken zenbatekoa eguneratzea, Nafarroan KPla nabarmen igo baita.

Osoko bilkurara bertaratuak kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2024ko martxoaren 1etik aitzinerako eraginarekin alkatearen % 43,64ko jardunaldi partziala ezartzea, urtean 10.430,00 euroko ordainsari gordinarekin, hamalau ordainsaritan banatua. Zenbateko horiei PFEZaren eta Gizarte Segurantzako langile-kuotaren kontzeptupean legez dagozkion atxikipean aplikatuko zaizkie, eta udalak bere gain hartuko du enpresa-kuotaren ordainketa.

2.- 2024ko urtarrilaren 1etik aitzinerako atzeraeraginarekin 166,67 euroko zenbatekoa ezartzea jardunaldi eskusiboko edo partzialeko araubidera atxikita ez dauden korporazioko kideentzat, udaleko osoko bilkuretara eta kide anitzeko organoetara joateagatik. Hala ere, zinegotzi bakoitzari urteko 2.000,00 euroko muga ezartzen zaio bertaratzeko kobratzeko. Zenbateko horiei PFEZ gisa legez dagozkion atxikipean aplikatuko zaizkie.



## ARANTZAKO UDALA

3.- 2024ko urtarrilaren 1etik aitzinerako atzeraeraginarekin, alkateari eta zinegotziei beren karguan jardutean benetan egindako gastuengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea ezartzea, betiere gastu horiek behar bezala baimendu eta justifikatzen badira, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako ordainsari-arloan urtero ezartzen diren baldintzetan eta zenbatekoetan.

4.- Alkatearen eta zinegotzien ordainsariak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariak eguneratzen diren proportzio berean eguneratzea.

5.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki taulan argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

### **5. 2022KO KONTUEN ITXIERA ONESPENA.**

Idazkariak adierazi du 2022ko kontuen likidazioa 2024ko otsailaren 7ko 19/2024 Alkate Ebazpen bidez onetsia izan zela. Era berean, 2022ko kontuen itxiera onesteko 2024ko otsailaren 8ko data duen txostenean xedaturikoa azaldu du, bai eta likidazioa egiteko kontuan hartutako dokumentazio guztia ere.

Horri dagokionez, kontuen itxiera onesteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 2/1990 Foru Legeko 305 artikuluan xedaturikoari jarraiki egin beharra dela azaldu du idazkariak.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2022ko kontuen itxierari hasierako onespena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabortz egunez, iragarki hau herriko iragarki-taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

### **6. AMEKURRUN ETA SORAETA PARAJEETAN OIHAN APROBETXAMENDUA EGITEKO ENKANTEA ARAUTUKO DUEN PLEGU ARAUTZAILEEN ETA PROZEDURA ABIARAZTEAREN ONESPENA.**

Idazkariak adierazi du 2024ko urtarrilaren 11ko ez-ohiko osoko bilkuran adostu zela Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantearen plegu arautzailea eta prozedura abiaraztea. Aipaturiko enkantea 2024ko urtarrilaren 15ean argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atarian, baina Nafarroako Gobernuako Baso Kudeaketa Atalak egindako balorazioan akats bat zegoela ikusirik (enkantearen prezioari zegokiona baino 30.147,57 € gehiago baloratu ziren), bertan behera uztea erabaki zen urtarrilaren 24ko 5/2024 Alkate Ebazpenaren bidez.

Orain balorazio zuzena egin da eta Amekurrun eta Soraeta parajeetako oihan aprobetxamenduaren salmenta 1. Lote bezala aterako da enkantera, prezioa hau izanik:

- 1. LOTEA: 41.081,03 €, BEZa kanpo.



## ARANTZAKO UDALA

Adierazitako oihan aprobetxamendu salmentaren enkantea egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 143 eta 166 artikuluetan xedaturiko prozedura jarraitu beharra da. Halaber, Nafarroako Toki Araubidea Eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen Bortzgarren Xedapen Gehigarrian eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaleko iragarki taulan argitaratu daiteke.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

- 1.- Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileak onestea.
- 2.- Aipaturiko oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen plegu arautzaileak eta plegu teknikoa Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodunetz, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

### 7. MIKEL ALTZURI APEZETXEAK ZAIN IRAULIAK APROBETXATZEKO ONESPENA.

Idazkariak Mikel Altzuri Apezetxeak Ekaitzako parajeetan dauden zain irauliak aprobetxatzeko eskaera azaldu du. Bertan, zain irauliak aprobetxatzeaz gain, zuhaitzak erori diren kokalekuan Pagoa landatzeko intentzioa azaldu du.

Horri dagokionez, Bidasoako Basozainak zain irauliak markatu ditu. Guztira 10m<sup>3</sup> dituzten 4 ondo dira, 30 €-tan baloratua.

Udalkideek adierazi dute zain iraulien aprobetxamendua partikularra baimendu daitekeen arren, horien lekuan Pagoak landatzen badira honako hauek herri-lurrekoak izanen direla, hau da, komunalak eta ez partikularrak.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Mikel Altzuri Apezetxeari Ekaitzako parajeetan markaturako zain irauliak aprobetxatzeko baimena ematea, horien aprobetxamendua dela eta **30,00 €-ko** kanona ordaintzeko baldintzapean.
- 2.- Mikel Altzuri Apezetxeari zain irauliak eroritako kokalekuan Pagoa landatzeko baimena ematea, berariaz ohartarazita horiek komunalak izanen direla eta ez partikularrak.
- 3.- Akordio hau Mikel Altzuri Apezetxeari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

### 8. ALKATEAREN EBAZPENAK.

2024ko 5etik 24ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.



## ARANTZAKO UDALA

### 9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura martxoan izanen dela jakinda eta akordio bat hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, ondorengo puntua osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak.

### 10. M8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA “MATXISMOA ISILARAZI”.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, agerian utzi nahi dugu berdintasun politika publikoek eta feminismoak duten balioa, gizarte-mugimendu eta mugimendu teoriko eta politiko gisa, emakumeek eta gizonen eskubide berak dituzten berdintasunezko gizarte libre baterantz aurrera egiteko. Erdietsitakoa gora behera, benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitu behar dugula aldarrikatzen jarraitzen dugu.

Feminismoak ibilbide luzea egin du mugimendu sozial eta politiko gisa, eta historian zehar genero-desberdinkerien aurrean emakumeek duten ezinegona adierazteko modu baketsuak izan ditu ezaugarri beti. Feminismoa ezagutza zientifikoa ere bada, sistema patriarkalari eusten dioten elementuak teorizatu eta kontzeptualizatzeko azterketa eta analisi ibilbide luze batekin. Baina mugimendu feministaren lorpen bakoitzak beti izan du erreakzio matxista bat, kontrako erantzun bat, ezarritako ordena sozialari eustea defendatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harremanak ezabatuko dituen benetako eraldaketa soziala saihesteko. Erreakzio hori bereziki nabarmena izan da azken urteotan, batez ere aldarrikapen feministak agenda politikoan sartu direnetik.

Informazioaren teknologiek eta ingurune digitalen, oro har, beste esparru batzuk sortzea erraztu dute, eta esparru horietan, hain zuen, erreferente eta/edo programa feministen eta berdintasun arloko edozein aurrerapen edo lorpenen aurkako eraso antolatua eta deskalifikazioak sustatzen dira. Feminismoaren eta emakumeen aurkako gorroto-diskurtsoa Interneten espazioak hartzen ari da, eta manosfera izenarekin ezagutzen dugunaren inguruan biltzen da. Inguru horretan antolatzen da matxismoa eta bertatik hedatzen dira mezu anti-feminista eta misoginoak. Gure testuinguruan, Manosferako talde edo azpikultura bereizgarrienak dira gizonen eskubideen aldeko elkarte edo taldeak, sedukzioaren guruak, influencer eta eduki-sortzaile antifeministak, foroak, incelak...

Matxismoa digitala batez ere gazteengan eragina duen komunikazio- eta harreman-modu berri bat da. Ideiak eta interpretazioak azkar eta berehala hedatzen dira, eta mezuak etengabe sortzen dira, zehaztasunik eta inolako analisi edo eztabaida kritikorik gabe, horiek indartzen dituzten daturik edo ebidentziarik gabe. Maskulinitate tradizionalaren eredua betiketzea xede duten gezurren eta fake news delakoen garaiari bizi gara. Maskulinitate horretan gizonen eta emakumeen ezarritako genero-rolak betetzen jarraitzea sustatzen da. Desberdinkeriak zalantzan jartzen dituzten eta, are gehiago, emakumeen gizonak menderatu nahi dituztela iradokitzen duten mezuak; sexu-indarkeria hutsaldu edo are emakumeen aurkako indarkeria existitzen dela ukatzen dutenak; emakumeen askatasuna behin eta berriz zalantzan jartzen dutenak... Internet hartzeaz gain, mezu horiek instituzio publikoetan oihartzuna dute, eta aurrerapen berrien lorpena zailtzen dute, dagoeneko adostasun soziala zuten eztabaidak berriz ere zalantzan jarri.

Berdintasuna deserosoa da bizi dugun gizartea birpentsatzera eta modu kritikoan aztertzeri behartzen gaituelako. Ikasitakoa etengabe zalantzan jartzen du pertsonen askatasunez eta baldintzatzailerik gabe



## ARANTZAKO UDALA

erabaki dezaketen eredu berriak eraikitzeko. Feminismoa, historian zehar emakumeen ahalduntzea bultzatu duena eta gizarte aldaketa handiak lortu dituena, oso kritikoa da ere maskulinitate hegemonikoarekin (tradizionala), eta hainbat hamarkada daramatza gizonak interpelatzen. Zuzeneko interpelazio horrek beldurra eta aldaketarekiko erresistentziak eragiten ditu gelditasunean erosoago dauden gizarteko sektore batzuetan. Manosferak bere burua zalantzan jartzeko eta aldatzeko beharrik ez duten espazio bat eskaintzen die, arrakalatutako maskulinitatea leheneratzeko aukera ematen diena.


Internet eztabaida publikoa polarizatu eta inpunitatea errazten duen etsaitasunezko toki bihurtzen duen diskurtso horren aurrean, beharrezkoa da emakumeek lortutako eskubideak finkatzea bermatzen duten berdintasun politikak sustatzen jarraitzea, eztabaida publikoa errespetutik egitea sustatzea, agenda politikoan desberdinkeriak agerian utziz, aurrera egiten jarraitzeko.

Adierazpen hau bultzatzen dugun Toki Entitateek honako konpromiso hauek hartu ditugu:


- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzea gure esku-hartze eremuan politika publikoen bitartez eta udal-arau, -plan eta -proiektu guztietan genero-ikuspegia txertatuta.
- Azterketa eta ikerketa feminista bultzatzen jarraitzea gure testuinguruan, pertsonen bizitzako esparru eta etapa guztietan dauden desberdinkeriak ikusarazteko.
- Mugimendu feministaren ekarpenak eta lana aitortzea, bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko, erakundeekin hitz egiteko guneak sortuz.
- Adin guztietako gizonekin esku-hartzea bultzatzea, berdintasunezko maskulinitate-ereduen eraikuntza sustatzeko.

Bertze aztergairik izan gabe, 18:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

**ALKATEA,**

  
2024.02.23  
12:21:24  
+01'00'  
Saturnino Larralde Ibarrola

**Ziurtatzen dut  
IDAZKARIA,**

  
Data:  
2024.02.23  
10:13:46 +01'00'  
Nagore Madariaga Iriarte

